

Lezo Lierni Lekuona, ziklo-krosaren gailurrean

# OARSO BIDASOKO hitza<sup>info</sup>

Osteguna, 2010eko urtarrilaren 26a | Urtea: 45. zenbakia | [oarsobidasoa.hitza.info](http://oarsobidasoa.hitza.info)

## Hondakinen %80,2 birziklatzen du Oiartzunek atez atekoarekin

Udalak 2010eko ekainetik azarora arteko datuak eman ditu. Aurretik, %33 birziklatzen zuten Oiartzunen

### Irungo argazkilariek egoitza berria dute

Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenek egokitu dute egoitza

#### Oharra

OARSO BIDASOKO HITZAKO langileek bat egin dute biharko hainbat sudiakutik egri duten greba orokor delaidlarekin. Hortaz, bihar ez da OARSO BIDASOKO HITZARIk argitaratuko.

### Muliateko etxebizitzaren zozketa, larunbatean

Hondarribiko 158 etxebizitzetarako 624 hautagai daude

### Pasaiaiko Udal Euskaltegiaren XVII. Kultur Astea etzi hasiko da



→ Ikusi, ukitu, entzun. MoviLab izeneko laborategi zientifikoa jarri dute Errenteria-Oreretako Gamon Zumardian. Bertan, herriko ikasleek edo nahituztiek zientziarekin harreman zuzena izango dute, eta ikusteko, ukitzeko eta bertako adituek esaten dituztenak entzuteko aukera izango dute.

## ERRENTERIAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA PUBLIKOA

**B** **Goiz txoko**  
\*partekatua  
Jangela/garraioa

Beraun z/g  
20100 ERRENTERIA  
943 51 25 00  
012906a@hezkuntza.net  
[www.euskalnet.net/beraunberri](http://www.euskalnet.net/beraunberri)

2 urtetik 12 urtera arte

**EF** **Goiz txoko**  
07:30/09:00  
Jangela/garraioa

Fernandez de Landa z/g  
20100 ERRENTERIA  
943 51 43 72-Faxa 943 52 13 13  
012905a@hezkuntza.net  
[www.koldomixelenakastetxea.com](http://www.koldomixelenakastetxea.com)

2 urtetik 18 urtera arte

**Goiz txoko**  
07:30/09:00  
Jangela/garraioa

Sorginbulo, 6  
20100 ERRENTERIA  
943 51 22 98  
012159@hezkuntza.net  
[www.cristabalgamon.com](http://www.cristabalgamon.com)

2 urtetik 16 urtera arte

**LANGAITZ** **Goiz txoko**  
07:30/09:00  
Jangela/garraioa

LANGAITZ IKASTOLA  
San Marcos, z/g  
20100 ERRENTERIA  
943 34 16 45-HLH-943 34 43 70-DBH  
012356@hezkuntza.net  
[www.langaitz.com](http://www.langaitz.com)

2 urtetik 16 urtera arte

badator, bagoaz, bagara...

**BOG**

# Laborategi zientifikoa ekarri dute herrira, «zientzia hobeto ezagutzeko»

Ostiralera bitartean zientziarekin lotutako jarduerak egin ahal izango dira Zumar-dian dagoen laborategian

## Alzpea Amas

CSI telesailen bezala ibili ziren atzo goizean bi haur talde Zumar-dian jarri duten laborategi zientifikoa. Luminolarekin eta argi ultramoreekin fluoreszenteak diren gorputzeko atalak ezagutu ahal izan zituzten batzuk. Horman beste aldean, berriz, mikroskopioaren laguntzarekin, hainbat elementuren zelulak ikusten aritu ziren beste batzuk.

Izan ere, MoviLab laborategi zientifikoa ekarri dute herrira. Ostiralera arte, Gamon Zumar-dian jarrita egongo da 10:00etatik 19:00etara. Hori bai, eguerdian itxi egingo dute, 14:00etatik 16:00etara.

Atzo goizean aurkeztu zuten laborategia Jose Angel Rodriguez Gazteria zinegotziak, Joaquín Acosta alkateordeak eta Mercedes Alonso proiektuaren koordinatzaileak. Alonsok azaldu zue-



Haurrek ederki pasatu zuten atzo esperimentuak egiten. ALZPEA AMAS

nez, lehen aldia da MoviLab Gipuzkoara ekartzen dutela.

Egunotan herririko ikastetxeetako, gaztelekuetako eta erretiratu-entuen elkarteetako kideak joango dira laborategia bisitatzen. Hala, %75eko okupazioa izango du MoviLabek. Hala eta guztiz ere, herritar guztiak gonbidatu dituzte laborategitik pasatzera (batik bat arratsaldetan), «zientzia hobeto ezagutzeko».

Laborategia bi gunetan bana-

tuta dago, eta bakoitzean tailer batzuk egiten dira. Lehenengoan argia egiteko hainbat modu aztertuko dituzte. Horrez gain, erreazio kimikoak ikertuko dituzte, odolaren arrastoekin, esaterako. Bigarrenean, berriz, kimikaren hainbat kontzeptu landuko dituzte, hala nola, Errenteriako ura aztertzeke. Toki berean, mikroskopioaren laguntzarekin hainbat lagin begiratu dituzte.

oarnas@hitza.info

## Zuzendaria

HITZA-k irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar, eta HITZA-k moneko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Oarso Bidasoko Hitza, Santa Klara 22, 20.100 Errenteria-Oretea. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: oarsobidasoa@hitza.info.

## Gerra deklaratu digute

Azkenean etorri da ETArekin ahalia. Ez nahi nahi nukeen bezain modu zehatz eta erabatekoan baina, urtarrilaren 8ko manifestazioaren leloarekin bat eginik, urrats garrantzitsu bat eman da. Izan ere, inol ez da beranduegi estrategiaz aldatzeko, eta alde horretatik ongetomia da ETArekin erabakia.

Dena den, arto politikoan bake nahia bidea egiten ari den bitartean, arto sozialean gerrarenak geroz eta nabarmenagoak dira. Hots, kapitalak eta beren erakundeek eta instituzioek gobernu mororen laguntzaz klase-gerra gordina deklaratu diote langileriarri eta herritar orori. Eta gerra horietan geroz eta latzago joko du.

Kontroladoreen aferarekin egin duena adibide bat besterik ez da. Kontroladoreen akatsak akats, greba hori gobernuari ballagarri izan zaito aginte erakustaldia egiteko eta militarrek erabiltzea beharrezkoa badu, egingo duela ere. «Estatuari pultsua botatzen diotak badaki galdutako egingo duela» (Rubalcalba dixit). Horrelakoak dira gure agintariak; bereak baino ahulagoekin, harro eta gupidagabe; nagusi eta jabeen aurrean, zakurra bezain apal eta leialenak.

Zorionez, urtarrilaren 27an, Euskal Herrian, berriro, greba orokorra izango dugu pentsioen erreformaren aurka. Askotan esan dut greba orokorra (bere mugak kontuan izanik) dugula tresnarik eraginkorrenetakoa krisi ekonomikoari aurre egiteko. Baldin eta Indar metaketa ahalik eta zabalena egiten bada, ekintza isolatu bat bezala ez bada ulertzen. Eta, egin ondoren, sindikatuak neguko kasemetara edo betiko martxara itzultzen ez badira,

Eta zoritxarrez, egin diren greba orokor guztiek, arrazoi bat edo bestearengatik, ez dute baldintza hori bete.

Horretaz gainera, gurean egitea ez de la aski. «Gure beharra ere bada, langile gisa eta nazio gisa, Madrilleko eta Bartzelonako, Sevillako eta Parisko, Marselako eta Baionako langileekin batera jotzea kapitalismoaren aurka eta askatasunaren alde. Jokabide sindikal salduak kritikatu, estatuaren mailan eta Europa mailan borroka-elkartasun esperientziak egitea garrantzitsua da».

Antzeko zerbalet idatzit nuen irailaren 27rako, eta Irizti berarekin jarraitzen dut orain ere. Beste baterako utziko dut zatiketa sindikalaren nondik norakoak aztertzea, baina garbi esan nahi dut: gobernuak (Madrilgoak eta bertakoak) eta patronalek duten jarrerari gogor eta batuta erantzuten ez badlegu, ja dugul!

Krisiak, gora-beherak gorabehera, luze joko du; eta konpon-tzen bada, planetaren lurralde eta zoko guztietan ematen ari den Indar harremanen lehialak erabakiko du norabidea. Beraz ez gara onik aterako krisi egoeratik gizakia eta natura muturreko egoera batera eramane duen sistema hori pikutara bidaltzen ez badugu, eta aldi berean beste gizarte mota bat sortzeko pauso sendoak ematen ez baditugu, bai Euskal Herrian zelan munduan.

Eta horretarako estrategia bat gauzatu behar du bal ezker sozialak eta baita ezker politikoa ere. Gertatzen dena gertatzen dela, estrategia garbi eta gupidagabea darama aurrera Kapitalak. Guk geurea gauzatzeko gal izan behar dugu.

Joxe Iriarte Bikila.  
Errenteria-Oretea

## → Laburrak

### Grebarekin bat egin du Zintzilik Irratiak

**HEDABIDEAK** ▶ Zintzilik Irratiak urtarrilaren 27ko greba orokorarekin bat egin du, eta egun horretan ohiko programazioa eten eta bi albistezi berezi emango ditu grebaren jarraipena eginez: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etara.

### Ate irekiak izango dira gaur Telleri ikastetxean

**DEIALDIA** ▶ Datorren ikasturteko aurrematrikulazioari begira, gaur eta otsailaren 3an Ate irekien Eguna izango da Telleri ikastetxean. Telleritik herritar guztiak animatu dituzte euren egotza ezagutzera, «batik bat 2009an jalo diren haurrak». Hitzordua arratsaldetan jarri dute bi egunetan, 17:15ean. Ikastetxea Biltor Idiazabal kaleko 1ean dago, Fatimako Armarren elizaren atzean.

### Beti Onak 4-0 irabazi du eta Touringek 1-3 galdu

**FUTBOLA** ▶ Eregional Preferente mallako herriko taldeek partida garrantzitsuak jokatu zituzten asteburuan, baina zorte ezberdina izan zuten. Beti Onak behar-beharrezkoak zituen hiru puntuak poltsikoratu zituen Martuteneri 4-0 irabazita. Touringek, berriz, mailaz lgotzeko borrokan puntu bat atzetik zuten Ostadarren kontra irabazi behar zuten, baina 1-3 galdu zuten etxean.

## Hilberriak

Oarso bidasoko HITZA jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • oarsobidasoa@hitza.info / Tel.: 943-34 03 30



**AINHOA HOLGADO  
TENA**

Atsekabe une hauetan  
gure besarkadarik estuena



Tolosan, 2011ko urtarrilaren 26a